

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2014ko MARTXOAREN 13an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko martxoaren 13an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Aritz Usandizaga Larrañaga
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:
 - 2014ko otsailaren 13an egindako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2013ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.
4. Argiteri publikoa, I. Fasea aldatzeko kontratuaren esleipena, hala bada.
5. X. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriale"-ren kitapenaren berri ematea, hala bada.
6. XI. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriale"-ri 2014 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.
7. 2014 ekitaldirako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala bada.
8. 2014 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onespina, hala bada.
9. Informazioa lagatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta finantzen departamentuaren eta Larraulgo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onespina, hala bada.
10. Fakturak eta ordainketak.
11. Beste batzuk.
12. Erregu, galderak eta mozioak.

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2014 urteko otsailaren 13ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

06/2014 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 4koa, 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2013KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Idazkari-kontuhartzaileak 2014/06 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2013 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.


2014/06 DEKRETUA

Udal honen 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:	19.664,65
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:	28.307,25
Aurrekontuko zordunak :	27.875,20
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	432,05



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		30.214,39
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	13.185,80	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	17.028,59	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		17.757,51
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		17.757,51
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		17.757,51
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		7.739,11
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		3.023,10
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		10.762,21
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		11.844,71
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		11.844,71

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

LAUGARREN PUNTUA

ARGITERI PUBLIKOA, IFASEA ALDATZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EVE-k diru-laguntzak atera zituela.

Ikusirik Larraulgo Udalari, goian aipaturiko entitateetatik bi diru-laguntza esleitu zaizkiola, Larraulgo Herrian argiteri publikoa aldatzeko.

Ikusirik, emandako bi diru laguntzarekin Larraulgo Herriko argiteri publikoaren aldaketa osoa egiteko, Udalak ez duela baliabide ekonomikorik, proposatzen delarik. Guzti hau kontutan izanik, proposatzen da argiteri publikoa aldatzeko I. fasea egiten hastea.

Ikusirik Larraulgo argiteri publikoa, I. Fasea egiteko lanen aurrekontu bat eskatu dela Grupo OIBERDIN-i. Aurkezturiko aurrekontua, 20.639,30 eurotako diru kopurua izanik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Grupo OIBERDIN enpresari, Larraulgo Argiteri Publikoaren aldaketa, I.Fasea, egiteko lanen esleipena onestea, 20.639,30 diru-kopuruan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

X. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ren KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, X. Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzaren kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 607,98 euro izan zen eta kostatu dena, Larraulgo kasuan 626,25 euro izan da.


Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak IX. Klasikoa, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

SEIGARREN PUNTUA

XI. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2014 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XI. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” aurrekontua bidali duela, guztira 19.500 eurotako dena, datorren martxoaren 9an ospatuko dena. Larraulgo Udalarari 623,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 623,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2014 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2014 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA

Alkate jaunak 2014 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen du, kuota gordina 18.561,31 eurotako delarik.

Bertaratuek, aipatutako errolda fiskala azterturik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2014 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.


BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2014 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2014ko apirilaren 1etik ekainaren 2ra bitartekoa izatea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2014 URTERAKO UDAL ZERGA-TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Une honetan, arratsaldeko 20.00 orduetan, Karlos Irazu zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.

Ikusirik 2014 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2014ko urtarrilaren 31tik otsailaren 28 arte epea ireki zela, 5 eskaera egon direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2014 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

- O.O.R.: IBI -famili ugaria.
- M.S.G.: IBI -famili ugaria.
- O.U.A.: IBI -famili ugaria.
- A.A.J. IBI –Eguzki plakak.
- I.O.D.: IBI –Eguzki plakak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA


INFORMAZIOA LAGATZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZEN DEPARTAMENTUAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalentsat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalean (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari *dela*:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestora barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babeska eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

.....

5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkien datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik behar. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikuluan 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko.”
Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

“1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erresebatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

.....

b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.


.....

d) Beste edozein herri administrazioarekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

.....

j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

.....



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

.....”

Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetzan hitzarmen ereduak, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, Udalbatza honek, Alkate-Lehendakariaren proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA: Informazioa emateko lankidetzan hitzarmena sinatzea, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3 eta A-4 eranskinekin batera.


BIGARRENA: Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Larraulgo Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.

HAMARGARREN PUNTUA PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

DIONISIO ORMAZABAL	44,41
ZELAI	42,50
BABESA SUZAI	186,34
TOLOMENDI	122,40
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	110,11
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	127,97



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LIDOINSA	825,83
AITZOL	64,96
ULAHI	572,05
CDI INFORMATIKA	15,00
FERRETERIA BARBE	151,92
MANPEL	96,56
REPSOL	730,54
REPSOL	310,00
GAS NATURAL FENOSA	84,30
GAS NATURAL FENOSA	237,80
GAS NATURAL FENOSA	607,41
GAS NATURAL FENOSA	375,33
GAS NATURAL FENOSA	188,16
GAS NATURAL FENOSA	211,83
GAS NATURAL FENOSA	480,67
GAS NATURAL FENOSA	75,20
GAS NATURAL FENOSA	558,45
MOVISTAR	134,93
MOVISTAR	18,97
MOVISTAR	19,41
MOVISTAR	56,36
MOVISTAR	80,07

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.529,48** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


HAMAIKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

11.1. LARRAULGO UDALAK, EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN ESKUBIDE OSOKO KIDE IZATEARI UZTEA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2011ko martxoaren 3an eginiko Udalbatzan, onartzen duela Euskadiko Udalaren Elkarteari atxikitzea, eskubide osoko kide bezala.

Ikusirik momentu honetan Larraulgo Udalak, Euskadiko Udalaren Elkartearen eskubide osoko kide izateari utzi egin nahi duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, estatutuen 9. Artikuluak ondorengo dioela:

1. *Kidea izateari utziko zaio:*
 - o *Kideak erabakita.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udala, Euskadiko Udalaren Elkartearen eskubide osoko kide izateari uztea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Euskadiko Udalen Elkarteari, hau da, EUDEL-eri ematea.

11.2. LARRAUL-ERNIO-LARRAUL MENDI LASTERKETAREN KONTUEN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik, 2014ko otsailaren 13an eginiko Udalbatzarrean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2014 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuela Larraulgo Udalak.

Kontutan hartuta diru-laguntza burutzeko baldintza bat jarri zela, hau da, 2013ko kitapena eta 2014ko aurrekontua aurkeztu beharko zirela.


Ikusirik, A.A.J. jaunak Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2013ko kontuen kitapena eta 2014ko lasterketaren aurrekontua aurkeztu dituela Larraulgo Udalean.

Kontutan izanik, 2014 urteari dagokion Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa dela eta Udalak onarturiko diru-laguntza burutu daitekeela, jarritako baldintzak bete dituelako.

Batzarkideak guztiaren berri hartzen dutelarik.

11.3.UDALETAKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETARI DAGOZKION JARDUERETAN ENPLEGUA BULTZATZEKO PROGRAMAREN BABESEAN, HERRI LANGILE BAT HAUTATZEKO ERABAKIA, HALA BADA

Ikusirik azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretua, udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearen Gipuzkoako udalei laguntzeko programa bati esker, Larraulgo Udalak Herri langile modura jarduteko lan kontratua egin ahal izango duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2013ko azaroaren 19 ko 41/2013 Foru Dekretua, tokiko enplegu planari laguntza gehigarria emateko programa kudeatzeko baldintzak arautzen duenaren 5.4 artikulua dioena:

“.../... Aurrekoa hala izanik ere, udalaren kasuan , aukera izango dute, hala nahi izanez gero, 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren arabera emandako laguntzei begira egindako hautaketa prozesuaren ondorioz sortutako itxaron zerrendetan gelditu ziren pertsonak kontratatzeko. 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuak arautzen ditu udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearen Gipuzkoako udalei laguntzeko programa kudeatzeko baldintzak (2013ko uztailaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 143. Zenbakia).

Ikusirik, 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren arabera emandako laguntzei begira egindako hautaketa prozesuaren ondorioz itxaron zerrenda gelditu zela, ondorengoek osatuta:

- 1.A.A.
- 2.M.C.G.
- 3.F.A.
- 4.A.J.A.
- 5.E.J.
- 6.E.A.

Ikusirik, Larraulgo Udalak kontsulta egin duela LANBIDEN goian aipaturiko itxaron zerrendan agertzen diren pertsonak bertan inskribatuak dauden jakiteko.


Kontutan hartuta LANBIDEKO erantzuna, non aipaturiko itxaron zerrendatik A.A. jauna ez dagoela LANBIDEN alta emanda.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretuaren babesean, non, Larraulgo Udalak Herri langile modura jarduteko lan kontratua egin ahal izateko, 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren arabera emandako laguntzei begira egindako hautaketa prozesuaren ondorioz itxaron zerrendak erabiltzeko onespena ematea, zerrenda ondorengoek osatzen dutelarik:

- 1.M.C.G.
- 2.F.A.
- 3.A.J.A.
- 4.E.J.
- 5.E.A.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: M.C.G. andrea, jornada osoaz, eta 5 hilabeteko iraupenarekin, herri langile lanak egiteko kontratua egiteko onespena ematea. Honek, lanpostuari uko egingo balio zerrendako hurrengo kontratatuko litzateke, eta horrela, zerrenda erabiliko delarik azkenean norbaitek lanpostua hartu arte.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri A.A., M.C.G., F.A., A.J.A, E.J., eta E.A jaun/andreei ematea.

11.4.BETIARTE-k EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Betiarte elkarteak eginiko eskaeran dioena:

“Bide konponketaren eskaera.

Idatzi honen bitartez, honako eskaera hau luzatzen diot Larraulgo Udalari:

Nire lantoki berria egiten asteko eta ondorengo funtzionamentua posible izateko, añezabaletikan galbatorako herribidea konpontzea. Aipaturako herribidea metro bat zabalagoa dago orain, eta zabalkuntza hori añezabal hauendi baserriko terrenoetan egin da.

Eskari honen erantzuna laster jasoko dudalakoan, agur bat Larraulgo Udalari.”

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, Karlos Irazuren abstentzioarekin, gehiengoaz, ondorengoaz,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak konpromisoa hartzen du, Agiñezabal Handi terrenoetan egiten ari den pabiloiaren eraikitze lanak bukatzean, eta Udal honek lehen erabilera baimena ematean, Agiñezabaletikan Galbatorako herri bidea asfaltatuko duela.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, interesdunari ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA